



Honako hau da azken bi asteetan luzatu dizuegun inkestaren galdera: **"Barakaldoko PSE-k Euskararentzako normalkuntza plana eta ordenantzak abian jartzeari uko egin berri dio...Zer deritzozu?"**

Esan beharra dago jaso ditugun iritzi gehienak, Udaletxeak indarrean duen hizkuntza politikareriko oso kritikoak izan direla. Honako hau izan da guztien gainerik nagusitu den aukera: "Gaizki deritzot. Udaletxeari dagokio euskararen normakuntzaren bidean bitartekoak jartzea"; (Grafikoan kolore gorria). Bozka bat gutxiago jaso duen erantzuna kolore berdean irudikatu dugu: "Ez nau harritzen. Udalak euskara mespresetzen jarraitzen du";. Urdinez honako erantzunak jasotako bozkek irudikatu ditugu: "Hipokresia galanta! Esango dute euskara guztion ondarea dela";. Eta bozka gutxien jasotako aukera beltzez ageri da: "Ondo. herritarrek ez dute holako neurririk eskatzen";. Animatu eta parte hartu datozen bi asteetarako proposatu dizuegun inkestan.